


Ontzian babestuta  
zauzte

**ONTZIKO  
ARDURADUN  
SANITARIOA**

 BOTIQUÍN C



GOBIERNO  
DE ESPAÑA

MINISTERIO  
DE EMPLEO  
Y SEGURIDAD SOCIAL

SECRETARÍA DE ESTADO  
DE LA SEGURIDAD SOCIAL



INSTITUTO SOCIAL  
DE LA MARINA



# ONTZIKO ARDURADUN SANITARIOA

Nor da ontziko arduradun sanitarioa?

Ontziko gaixoei eta istripua izan dutenei lehen arreta emateko izendatu den eta prestakuntza jaso duen tripulatzailea, zeinak irrati bidez egindako kontsultari erantzuten dion medikuaren aholkuak jasoko baititu.

## Zergatik da beharrezkoa OASa?

Itsasontzietan, beste edozein lantokitan bezala, langileak gaixotu egin daitezke edo istripua izan dezakete, batez ere kontuan hartuta ontziko bizimodua eta lan-baldintzak: zoru mugikorrek eta irristakorrek, leku itxiak, eguraldi txarra, ekipamendu edo aparailu arriskutsuak, lanaldi luzeak, txandakako lana, etab.

Horri gaineratu behar zaio lehorreko laguntza-zentroak urruti daudela eta itsasontzi gehienetan ez dela egoten osasun-langilerik.

Tripulatzaile bat ontzian gaixotzen denean edo min hartzen duenean, oinarrizko lau elementu daude hari arreta emateko:

- Irrati bidezko kontsulta medikoa.
- Ontzian arauzko botika-kutxa egotea, eman beharreko arretarako medikamentu eta material sanitario egokiz hornitua.
- Ontziko arduradun sanitarioa (OAS) bertan egotea.
- Ontziko Gida Sanitarioa eskura izatea, irrati bidezko kontsulta medikoaren osagarri gisa.



## ZER-NOLAKO PRESTAKUNTZA IZAN BEHAR DU OAS BATEK?

Europar Batasuneko Kontseiluaren martxoaren 31ko 92/29/EE Zuzentarauak ezartzen du ezen kapitainak eta hark botika-kutxaren erabilera eskuordetutako langileak edo langileek berriazko prestakuntza jaso beharko dutela, aldian-aldian eguneratua (gutxienez bost urtean behin).

Gure herrialdean, prestakuntza hori, STCW 78/10 Hitzarmenaren arabera, Itsasoko Gizarte Institutuaren eskumenekoa da, eta haren edukia martxoaren 5eko PRE/646/2004 Aginduak arautzen du.

Prestakuntza motak:

- **Hasierako prestakuntza sanitario espezifikoa:**  
C motako botika-kutxa orokorra duten (gehienezko distantzia lehorretik: 60 milia) itsasontzietako arduradun sanitarioei zuzendua.
- **Prestakuntza sanitario espezifikoa aurreratua:**  
A edo B motako botika-kutxa orokorra duten itsasontzietako arduradun sanitarioei zuzendua.

Ontzian babestuta  
zaude



## Zer-nolako ezagutzak, gaitasunak eta trebetasunak izan behar ditu OAS batek?



Oro har, OAS batek:

- Gaixoei eta istripua izandakoei lehen arretak emateko gaitasuna izan beharko du.
- Erizaintzako oinarrizko teknikak (bendajeak, sendaketak, medikamentuak ematea, etab.) ezagutu beharko ditu.
- Ontzian hartu beharreko neurri higienikoak aztertu beharko ditu.
- Ontziko arauzko botika-kutxaren edo botika-kutxen erabilera kudeatu beharko du, haiek egoera onean eta behar bezala hornituta egon daitezzen.
- Trebatuta egon beharko du datuak biltzen, datu horiek bidaltzen, eta irrati bidezko kontsultetan ematen zaizkion aholkuak jasotzen eta adierazten dizkieten maniobra diagnostikoak nahiz terapeutikoak egiten. ("medikuaren urrutiko begiak eta eskuak")

## ZER EGIN BEHAR DA PRESTAKUNTZA JASOTZEKO?

Prestakuntza sanitarioko ikastaroak (aurrez aurrekoak, online-ikastaroak) Itsasoko Gizarte Institutuko probintzia-zuzendaritzetan eta Bamioko eta Isla Cristina Itsas Heziketako Zentro Nazionaletan antolatzen dira, baita IGIK aldeztutako aurretik homologatutako zentro pribatuetan ere.

IGIK ematen dituen ikastaroetan parte hartzeko eskabidea egiteko, probintzia-zuzendaritzetara joan beharko duzu.

Informazio gehiago nahi izanez gero, hona hemen Interneteko helbidea:

[http://www.seg-social.es/Internet\\_1/Trabajadores/Trabajadoresdelmar/Formacion/FormMarSanitaria/SolicituddeAdmision34092/index.htm](http://www.seg-social.es/Internet_1/Trabajadores/Trabajadoresdelmar/Formacion/FormMarSanitaria/SolicituddeAdmision34092/index.htm)





## ITSAS OSASUNeko **PROBINTZIA** ZENTROAK

A CORUÑA Avda. Ramón y Cajal, 2. 15006. Tel: 881 909 800 \* ALACANT Moll de Ponent, 2. 03001. Tel: 965 923 971 \* ALMERIA Muelle Puerto Pesquero, s/n. 04002. Tel: 950 620 147 \* BARCELONA Albareda, 1. 08004. Tel: 934 439 603 \* BIZKAIA (Bilbao) Virgen de Begoña, 32. 48006. Tel: 944 739 020 \* CADIZ Avda. de Vigo, s/n. 11006. Tel: 956 206 053 \* CARTAGENA (Murcia) Paseo Alfonso XII, s/n. 30202. Tel: 968 502 433 \* CASTELLÓ Plaza Mikel Peris i Segarra, s/n. 12100. Tel: 964 285 408 \* CEUTA Avda. Cañonero Dato, 20. 51001. Tel: 956 500 240 \* GIJON (Asturias) Celestino Junquera, 19. 33201 Tel: 985 309 170 \* DONOSTIA (Gipuzkoa) Hermanos Otamendi, 13. 20014. Tel: 943 483 574 \* HUELVA Avda. Hispanoamérica, 9. 21001. Tel: 959 257 411 \* LUGO Ronda Múxico Xosè Castiñeira, 10 Bajo. 27002. Tel: 982 225 010 \* MADRID Gaztambide, 85. 28003. Tel: 914 412 530 \* MALAGA Pasillo del Matadero, 4 (Puente del Carmen). 29002. Tel: 952 359 361 \* MELILLA Avda. de la Marina Española, 7. 52001. Tel: 951 764 378 \* ILLES BALEARS (Palma de Mallorca) Moll Vell, 15. 07012. Tel: 971 725 606 \* LAS PALMAS DE GRAN CANARIA (Las Palmas) León y Castillo, 322. 35007. Tel: 928 494 645 \* CANTABRIA (Santander) Avda. Sotileza, 8. 39009. Tel: 942 319 518 \* SEVILLA Fernando IV, 1. 41011. Tel: 954 286 028 \* TARRAGONA Francesc Bastos, 19. 43005. Tel: 977 191 000 \* SANTA CRUZ DE TENERIFE Avda. de Anaga, s/n. 38001. Tel: 922 598 931 \* VALENCIA Avda. del Puerto, 300. 46024. Tel: 963 359 914 \* VIGO (Pontevedra) Avda. de Orillamar, 51. 36202. Tel: 986 216 100 \* VILAGARCIA DA AROUSA (Pontevedra) Avda. da Mariña, 23. 36600. Tel: 986 568 363

## ITSAS OSASUNeko **TOKIKO** ZENTROAK

ALGECIRAS (Cádiz) c/ Del Muro, 11. 11201. Tel: 956 651 656 \* AVILES (Gijón) Avda. Conde de Guadalhorce, 97. 33400. Tel: 985 567 403 \* BARBATE (Cádiz) Avda. del Generalísimo, s/n. 11160. Tel: 956 430 579 \* BERMEO (Bizkaia) Nardiz Tar Benanzio, 7. 48370. Tel: 946 882 972 \* BURELA (Lugo) Rosalía de Castro, 20. 27880. Tel: 982 585 813 \* CARBONERAS (Almería) Avda. del Faro de Mesa Roldan, 98. 04140. Tel: 950 454 195 \* CELEIRO (Lugo) Avda. Gerardo Harguindey Banet, 7. 27863. Tel: 982 561 561 \* CORCUBIÓN (A Coruña) A Viña, 5. 15310. Tel: 981 746 204 \* FERROL (A Coruña) Ctra. Alta do Porto, 25. 15401. Tel: 981 357 947 \* ISLA CRISTINA (Huelva) Avda. Federico Silva Muñoz, s/n. 21410. Tel: 959 343 863 \* MUROS (A Coruña) Porta da Vila, 16. 15250. Tel: 981 826 162 \* NOIA (A Coruña) Avda. de la República Arxentina, 21. 15200. Tel: 981 821 500 \* ONDARROA (Bizkaia) Ibai-Ondo, 6. 48700. Tel: 944 984 320 \* PALMÓS (Girona) Plaça de la Catifa, 3. 17230. Tel: 972 312 178 \* PONTEVEDRA Simón Bolívar, 3. 36003. Tel: 986 845 963. ROSES (Girona) Avda. Tarragona, 83. 17480. Tel: 972 154 705 \* SANTOÑA (Cantabria) Méndez Núñez, 1. 39740. Tel: 942 660 650 \* SANTA UXIA DE RIVEIRA (Vilagarcia da Arousa) Praza dos Mariñeiros, 8. 15960. Tel: 981 870 540



Eskaneatu QR kode hau, eta jakingo duzu zein diren ontzian Arduradun Sanitario bat eramatearen abantailak.



MINISTERIO DE EMPLEO Y SEGURIDAD SOCIAL

SECRETARÍA DE ESTADO DE LA SEGURIDAD SOCIAL

INSTITUTO SOCIAL DE LA MARINA